



2 GAIA:

EKONOMIAREN HASTAPENAK

**2.1. Sarrera. Ekonomiaren aztergaia
(zientzia gisa)**

2.2. Jarduera Ekonomikoa. Eskaintza eta eskaria. Merkatua

2.3. Estatuaren rola

2.4. Sistema ekonomiko parekatuak

2.5. Jarduera ekonomikoaren neurketa



2.1. Sarrera. Ekonomiaren aztergaia (zientzia gisa).

¿Zer da ekonomia? definizioa

Ekonomia, gizarteek baliabide urriak ondasun baliotsuak ekoizteko nola erabiltzen dituzten eta ondoren gizabanakoen artean nola banatzen diren aztertzen duen zientzia da

¿Zer da ekonomia? definizioa

Ekonomiak aztertzen du...

- (1) gizarteek nola erabiltzen dituzten baliabide urriak (NOLA)
- (2) ondasun baliotsuak ekoizteko, (ZER) eta
- (3) gizabanakoen artean banatzeko (NORENTZAT)

Definizio honen baitan dauden funtsezko kontzeptuak:

Urritasuna

Efizientzia

Urritasuna, ondasun ekonomikoak urriak dira desioekin alderatuz

Efizientzia, Baliabide urrietatik ahalik eta probetxu gehien atera behar du gizarteak



Ekonomiaren bi adarrak:

Mikroekonomia

Makroekonomia

Mikroekonomia

Adam Smith, mikroekonomiaren aitzindari, ("*Nazioen aberastasuna*") XVIII. mendean

Karl Marx ("*Kapitala*") XIX. Mendean (Enpresa eta merkatu kapitalisten azterketa)

Banakako entitateen jokabideaz arduratzen da adar hau (merkatuak, enpresak, gizabanakoak)

Makroekonomia

John Maynard Keynes, *aitzindaria, Okupazio, Interesa, eta Diruaren Teoria Orokorra (1936)*

Ekonomiaren funtzionamendu orokorraz arduratzen da adar hau.
Gaiak: inbertsioa eta kontsumoa, dirua eta interes tasak, herrien hazkundera eta krisia, etabar

Antolaketa ekonomikoaren hiru arazoak:

- ¿*Zer* ondasun ekoiztu eta zenbat?
- ¿*Nola* ekoiztu ondasunak?
- ¿*Norentzat* ekoiztuko dira ondasunak?

JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKETA

Hasierako Ekonomian, ekoizle eta kontsumitzaile gisa jarduten dute pertsonak / familiek / leinuek Ekoizten dutenetik zati txiki bat baino ez da beste pertsona batzuekin elkartrukutzen / merkaturatzen.

Ekonomia Garatu batean, bi motako erakundetan biltzen dira gizakiak jarduera ekonomikoa garatzeko:

- Estatua
- Enpresa (Enpresa Publikoa barne)

JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKETA

Errealitatean, oinarrizko tresna bi hauen bidez antolatzen da gizataldeen jarduera ekonomikoa:

- **ZUZENDARITZA:** Bai Estatia antolatzeko, bai eta enpresen barne antolaketarako ere.
- **MERKATUA:** Enpresen arteko harremanak antolatzeko (Ez beti enpresa publikoetan)

EKONOMI-JARDUERAREN ANTOLAKETA

MERKATUA



ESTATUA



EKONOMI-JARDUERAREN ANTOLAKETA

MERKATUA



ZUZENDARITZA

ZENTRALA

KAPITAL-
-ENPRESAK

MERKATUKO
ENPRESA PUBLIKOAK

EKONOMIA SOZIAL
ETA SOLIDARIOA

ENPRESA MIXTOAK

AUTONOMOAK


EKONOMIA
MIXTOA

ESKU HARTZEA
/ ARAUPENA

GASTU
PUBLIKOA


MONETA-
-POLITIKA

ZUZENDARITZA
ZENTRALEKO
ENPRESA
PUBLIKOAK



**JARDUERA
EKONOMIKOAREN
ANTOLAKUNTZA**

HASIERAKO EKONOMIA



JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKUNTZA

**GIZAKIA /
FAMILIA**


KONTSUMITZAILEAK

**ERAKUNDEAK
(Zuzendaritza)**

**ENPRESA
PRIBATUAK**

**ENPRESA
PUBLIKOAK**

ESTATUA



JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKUNTZA

**GIZAKIA /
FAMILIA**

KONTSUMITZAILEAK

**ERAKUNDEAK
(Zuzendaritza)**

ESTATUA

ESKU-HARTZEA /
ARAUAK

GASTU PUBLIKOA

MONETA POLITIKA

ZUZENDARITZA
ZENTRALEKO
ENPRESA
PUBLIKOAK

ENPRESA
KAPITALISTAK

MERKATUKO
ENPRESA
PUBLIKOAK

EKOIZLE
AUTONOMOAK

EKONOMIA
SOZIAL ETA
SOLIDARIOA

ENPRESA
MIXTOAK

EKONOMIA
MIXTOA

MERKATUA

Enpresa: Ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko gizarte-egitura

Gure inguruan, kapital-enpresa edo enpresa kapitalista da enpresa eredu nagusia. Bertan biltzen dira:

- Enpresaren jabetza/titulartasuna hartzen duen inbertsiogilea (enpresaria)
- Soldatapeko langileak. Ez dira enpresaren jabe eta haien lana ekartzen dute, soldata baten truke.

Titulartasuna da enpresen helburuen oinarria

Kapital-enpresaren helburua ez da ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea, epe ertaineko etekina maximizatzea baizik. Horretarako tresna baizik ez da ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea. Etekinak maximizatzeak ondorio hauak dakartza:

- Sarrerak maximizatzea (salmentak batez ere)
- Gastuak minimizatzea (Erosketak eta lansariak batez ere)

Hala ere, etekinak maximizatzeko joera hori merkatuak eta beste enpresen lehiak mugatzen dute, etekinen aldeko joera egituratuz eta gehiegikeriak mugatuz.

ENPRESA KAPITALISTA

LANAREN BANAKETA	ZEREGINA
INBERTSIOGILEA (KAPITALISTA)	ENPRESAREN JABEA
LANGILEAK	SOLDATAPEKOAK

ETEKINA =
=SARRERAK - GASTUAK

GASTUAK
(LANSARIAK, EROSKETAK, ...)

SARRERAK
(SALMENTAK)

BESTE ENPRESA EREDU BATZUK

- SOLDATAPEKO LANGILERIK GABEKO AUTONOMOAK
- EKONOMIA SOZIAL EDO SOLIDARIOKO ENPRESAK
- ENPRESA PUBLIKOAK
- ENPRESA MIXTOAK, jabetza molde ezberdinak biltzen dituztenak.

- Erakunde publiko batek –zuzen zein zeharka- kontrolatzen dituen enpresak dira ENPRESA PUBLIKOAK

- Enpresa publikoek jarduteko erak:
 - A. Haien kontrola duen erakunde publikoaren zuzendaritzaren arabera. Adib: UPV/EHU
 - B. Merkatuaren tresnen arabera. Adib.: Volkswagen (Alemaniako Estatu batek kontrolatuta)

MERKATUAREN TRESNAK

LEHIA

ESKAINTZA

ESKARIA


ENPRESAK

PRODUKTU /
ZERBITZUAK

GIZAKIAK /
FAMILIAK

ETEKINA

SALNEURRIA



JARDUERA EKONOMIKOAREN ANTOLAKUNTZA

- LANAREN BANAKETA ETA ESPEZIALIZAZIOA

**GINARRIZKO
ERAGILE
EKONOMIKOAK**

GIZAKIAK
(Etxeko Ekonomiak)

- Erabiltzaile /
Kontsumitzaile gisa
- Ekoizle gisa

GIZARTE EGITURAK

ENPRESA PRIBATUAK

ERAKUNDE PUBLIKOAK

**SISTEMA
EKONOMIKOAK**

PRIBATUA EDO PUBLIKOA

MERKATUKOA EDO ZUZENDARITZA ZENTRALEKOA

Merkatu-ekonomia, ekonomia zentralizatua eta ekonomia mixtoa

Sistema ekonomiko alternatiboen arabera antolatzen dira gizarteak (ZER, NOLA eta NORENTZAT). Sistema bakoitzean urriak diren baliabideak erabiltzeko eta banatzeko tresnak aztertzen ditu ekonomiak.

OHARRA: OHIKO NAHASKETA:

MERKATU-EKONOMIA – EKONOMIA PRIBATUA

EKONOMIA ZENTRALIZATUA – EKONOMIA PUBLIKOA



MERKATU- -EKONOMIA	EKONOMIA PRIBATUA (Merkatukoa beti)	
	MERKATUKO EKONOMIA PUBLIKOA (Autogestioa...)	EKONOMIA PUBLIKOA (Merkatukoa ala Zuzendaritza Zentralekoa)
	ZUZENDARITZA ZENTRALEKO EKONOMIA PUBLIKOA	



Eskaintza, eskaria eta merkatua

¿Zer da merkatua?

- Milaka edo milioika enpresa eta kontsumitzailek ondasun eta zerbitzuen borondatezko elkartrukeak burutzen dituzte
- Prezio eta merkatu-sistema “ikustezinek” koordinatzen dituzte beren jarduera eta asmoak

MERKATUAREN OINARRIAK

- Eragile asko (pertsonek / enpresak) produktuak eta zerbitzuak eskatzen eta eskaintzen
- Etekinak (enpresariengatik helburu gisa)
- Lehia (etekinak moldatzeko tresna gisa)
- Etekinak maximizatzea da enpresariengatik helburua, ez merkatu librearen sustatzea
- Merkatu librearen bitartez- etekinaren etsaia da



Merkatuak berak
merkatua
desegiten du ...
(eta, zenbaitetan,
berregiten du
ere)



Lehiakideak erostea garestia da,
baina gutxi batzuk gehiago eta
bezeroak hasetzeko beharrarekin
amaituko dugu".

**ETEKINA ENPRESAN
URTEKO IRABAZI ETA GALEREN KONTUA**


URTEKO SARRERAK	URTEKO GASTUAK
SALMENTAK	SOLDATAK / LANSARIAK
...	EROSKETAK
	...

SARRERAK > GASTUAK = IRABAZIAK


SARRERAK < GASTUAK = GALERAK


Prezioa

- Prezioa ondasunaren balioa da dirutan. Pertsonak eta enpresek, ondasunak borondatez elkartrukatzeko balioa adierazten du
- Prezioek seinaleak bidaltzen dituzte, eta enpresa eta kontsumitzaileek beren aukerak egin
- Prezioek ekoizle eta kontsumitzaileen erabakiak koordinatzen dituzte (altuek kontsumitzaileak moteldu eta baxuek ekoizleak)



MERKATU SISTEMAK, OINARRIZKO HIRU ARAZOAK, ESKARI-ESKEINTZAREN BIDEZ KONPONTZEN DITU





Merkatuak

- ◆ Erosleek eskaria determinatzen dute
- ◆ Saltzaileek eskaintza determinatzen dute

Merkatu motak:

- Lehia perfektua
- Lehia inperfektua (monopolio, oligopolio, etab.)

Eskaria

Eskatutako kopurua,
ondasun jakin baten merkatuan
erosleek erosi dezaketen eta nahi duten kopurua da

Eskariaren legeak dio
alderantzizko erlazioa dagoela
ondasun baten prezioa eta
eskatutako kopuruaren artean

Eskariaren Taula



Prezioa	Kopurua
€ 0.00	12
0.50	10
1.00	8
1.50	6
2.00	4
2.50	2
3.00	0



Eskaria determinatzen duten aldagaiak

- ◆ Merkatuko prezioa
- ◆ Kontsumitzailearen errenta
- ◆ Erlazionaturiko ondasunen prezioa
- ◆ Gustuak
- ◆ Expektatiba edo igurikapenak



Eskaria
sustatzeko
aukera dute
enpresek...




Eskari-kurba

Eskari kurba malda negatiboa duen kurba da, prezioa eta eskatutako kopurua erlazionatzen dituen


Merkatuko eskariak ondasun edo zerbitzu jakin baten eskari indibidual guztien batura adierazten du

Eskari kurba

Helatuaren
prezioa



Eskariaren Kurba



Eskatutako kopuruan aldaketa versus eskariaren aldaketa

Eskatutako kopuruan aldaketa

- ◆ Aldaketa eskari kurban zehar.
- ◆ Produktuaren *prezioan* emandako aldaketa baten ondorio

Aldaketa Eskarian

- ◆ Prezioa ez beste aldagai baten aldaketaren ondorio.
- ◆ Eskari kurbaren desplazamendua, eskubira ala ezkerrera.

Eskaintza

Eskaintako kopuruak saltzaileek ondasun jakin baten merkatuan saldu dezaketen eta nahi duten kopurua adierazten du.

Eskaintzaren legeak dio erlazio zuzen eta positiboa dagoela ondasun baten prezioa eta eskaintako kopuruaren artean.

Eskaintza determinatzen duten aldagaiak

- ◆ Merkatuko prezioa
- ◆ Faktoreen prezioa
- ◆ Teknologia
- ◆ Espektatibak
- ◆ Ekoizle kopurua



Eskaintza taula



Prezioa	Kopurua
€ 0.00	0
0.50	0
1.00	1
1.50	2
2.00	3
2.50	4
3.00	5




Eskaintza kurba

Eskaintza kurba ondasun baten prezioa eta eskaintako kopurua erlazionatzen dituen malda positibodun kurba da.

Merkatuko eskaintzak ondasun edo zerbitzu baten saltzaile guztien eskaintza indibidual guztiak barne hartzen ditu.

Eskaintza kurba

helatuaren
prezioa



Eskainitako kopuruan aldaketak versus aldaketak eskaintzan

Aldaketak Eskainitako kopuruan

- ◆ Mugimendua eskaintza kurban zehar.
- ◆ Ondasunaren merkatuko prezioaren aldaketaren ondorio.

Aldaketak Eskaintzan

- ◆ Prezioa ez beste aldagai baten aldaketaren ondorio
- ◆ Eskaintza kurban desplazamendua, eskubira ala ezkerrera.

Eskaintza eta eskaria batera

Orekako prezioa

- ◆ Eskaintza eta eskaria orekatzen dituen prezioa. Grafikoki, eskaintza eta eskari kurba gurutzatzen dituenena.

Orekako kopurua

- ◆ Eskaintza eta eskaria orekatzen dituen kopurua. Grafikoki, eskaintza eta eskari kurbaren interseksioan dagoena.

Orekako Prezio eta Kopurua

Orekako Prezio eta Kopuruek ez dute adierazten benetan zenbat eta zein preziotan saltzen den, Merkatuaren joera norantza doan baizik.

Eskaintza eta eskaria batera

Eskariaren taula

Prezioa	Kopurua
€ 0.00	19
0.50	16
1.00	13
1.50	10
2.00	7
2.50	4
3.00	1


Eskaintzaren taula

Prezioa	Kopurua
€ 0.00	0
0.50	0
1.00	1
1.50	4
2.00	7
2.50	10
3.00	13

2.00 €ko prezioan, eskatutako kopurua eta eskainitako kopurua berbera dira

Eskaintza eta eskariaren oreka

Helatuaren prezioa



Soberakinak

Prezioa, orekako prezioaren gaineratik dagoenean, eskatutako kopurua baino gehiago eskaintzen da. Hau da, eskaintza **soberakina** dago. Saltzaileek prezioa apalduko dute salmentak igotzeko, eta ondorioz, orekakara hubilduko dira.

Prezioak jaitsi
... salmentak
igotzeko...



Gure eskariaren kurbak duen beherantzako malda eta gure lehiakide diren saltoki kopurua kontuan hartuz, gure etekinen bilakaera indartzeko aukerak ditugu. Jaitsi gominolen prezioa."

Urritasuna

Prezioa, orekako prezioaren azpitik denean, eskatutako kopurua eskainitakoa baino gehiago da. Eskari gehiegi edo **urritasun** egoera dago. Saitzaileek prezioa igoko dute erosle askok erosi nahi dutelako, eta ondorioz, orekara hurbilduko dira.

Eskaintza, eskaria eta gobernuaren politikak

- ◆ Merkatu librean, arautu gabeen, merkatuko indarrek orekako prezio eta kopuruak determinatzen dituzte.
- ◆ Nahiz eta orekako baldintzak efizienteak izan, orekaren ondorioak ez dira beti egokiak.
- ◆ Merkatuaren “akats” hauek aurkitu eta horiek konpontzeko irtenbideak proposatzea da Ekonomiaren arduretako bat,

Prezioen kontrola...

- ◆ Orohar, merkatuko prezioa bidezkoa ez dela (erosleentzat zein saltzaileentzat) uste denean jartzen dira.
- ◆ Gobernuak prezio **maximo** eta prezio **minimo** deiturikoak finkatzen ditu.

Prezio maximo eta minimoak

Prezio Maximoa

- ◆ Ondasun bat saldu daitekeen legezko prezio altuena

Prezio Minimoa

- ◆ Ondasun bat saldu daitekeen legezko prezio baxuena.

Prezio Maximoak

Gobernuak prezio maximoak ezartzen dituenean, zera gerta daiteke:

- ◆ Orekako prezioaren gainetik jartzen bada ez da efektiboa
- ◆ Orekako prezioaren azpitik ezartzen bada, efektiboa da eta urritasuna sortzen du.



2.3. Estatuaren zeregina



Estatuak merkatuaren akatsak konpon ditzake:


Merkatu-hutsak	Estatuaren helburuak	Estatuaren esku-hartzeak (adibideak)
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Efizientzia-eza</u> - Monopolioa / Oligopolioa - Kanpo-eraginak - Ondasun Publikoak 	<p>Konpetentzia sustatu</p> <p>Merkatuetan esku-hartu</p> <p>Jarduera onuragarriak bultzatu</p>	<p>Monopolioaren aurkako legeak</p> <p>Kutsaduraren aurkako legeak, tabakoaren aurkako ordenantzak</p> <p>Nazio-defentsa, Hezkuntza publikoa</p>
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Disparekotasun handiegiak</u> - Ezberdintasun onartezinak errentan eta aberastasunean 	<p>Errenta birbanatu</p>	<p>Errenta eta aberastasunaren gaineko zerga progresiboak</p> <p>Transferentziak / Laguntzak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Arazo makroekonomikoak</u> - Ziklo ekonomikoak (inflazio eta langabezia handiak) - Hazkunde ekonomiko geldoa 	<p>Egonkortasunerako neurri makroekonomikoak</p> <p>Hazkundera sustatu</p>	<p>Moneta-politika (moneta- eskaintza eta interes-tasak aldatu)</p> <p>Politika fiskala (zergen eta gastuen egitaraua)</p> <p>Inbertsioa hezkuntzan, Aurrezki-tasa nazionala igo, defizit publikoa murriztu</p>

❖ **Merkatuaren efizientzia-eza**

- Konpetentzia ez-perfektua →
Lehiakideak/bezeroak/hornitzaileen aurkako gehiegikeriak →
Lehia babesteko arau eta politikak
- Kanpo-eraginak (edo difusio-efektuak) → Enpresek edo gizabanakoek merkatutik kanpo daudenen esku derrigorrezko kostu edo irabaziak uzten. Adib.: kutsadura (kanpo-eragin positiboa); aurkikuntza zientifikoak (kanpo-eragin positiboa). → ZERGAK/ISUNAK/PIZGARRIAK.
- Ondasun publikoak behar beste edo modu ez-egokian hornitzea → produkzioa Estatuaren eskuetan (enpresa publikoak) edo ondasun eta zerbitzu horien ekoizpen pribatua arautu

❖ Ekitate eskasa

- Merkatu mekanismoak ez du ziurtatuko sozialki justu den (ekitatiboa den) ERRENTA BANAKETA → ZERGA SISTEMA PROGRESIBOA / TRANSFERENTZIAK.



- Batez ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (zerga progresiboa)

Ekonomiak azter dezakeena birbanaketa sistema desberdinen kostu / irabaziak izango da.

❖ Hazkundera eta Egonkortasun Makroekonomikoekiko arazoak

- Politika fiskala

- Moneta-politika

- Eskaintzaren aldeko politikak

- Enpresa publikoak

Zergak
Gastuak

Interes-tasak
Kreditu baldintzak
(Inbertsio)

Produkzio-enplegu-
inflazio mailari eragin
diezaiokete



ZIKLO EKONOMIKOEI
LOTUTAKO ARAZOAK
ZUZENDU ETA
HAZKUNDE-TASA IGO

AURREKONTU PUBLIKOAK

DEFIZITA = GASTU
PUBLIKOA - SARRERAK

SARRERAK
(ZERGAK ...)

**GASTU
PUBLIKOA**
(HEZKUNTZA, OSASUNGINTZA,
PENTSIOAK, DEFENTSA, ...)

DEFIZITA REN FINANTZAZIOAREN ONDORIOZ GERO ETA
HANDIAGOA BIHURTU OHI DA **ZOR PUBLIKOA**

MONETA-POLITIKA

ESTATUAK BAKARRIK DU “DIRUA SORTARAZTEKO” AHALMENA BANKU ZENTRALEK JAULKITZEN DUTE DIRUA

BANKU ZENTRALAK BANKUEI EMATEN DIE DIRUA MAILEGUEN
BIDEZ ETA BANKUEK FAMILIEI, ENPRESEI ETA GOBERNUEI

MONETA-
POLITIKAREN
TRESNAK

HEDATZAILEA

- MAILEGU GEHIAGO
BANKUEI

- MAILEGU HORIEN
INTERES-TASEN
MURRIZTU

MURRIZTAILEA

- BANKU ZENTRALAK
BANKUEI EMATEN
DIZKIEN MAILEGUAK
MURRIZTU

- MAILEGU HORIEN
INTERES-TASAK IGO

Zergak

Gobernuak zergak biltzen ditu,
ondoren gastu publikora
bidaltzeko diru-sarrera gisa.

Zergen ondorio kaltegarri batzuk



- ◆ Merkatuko jarduera moteldu
- ◆ Ondasun bat zergapetzean, saldutako kopurua jeitsi egiten da.
- ◆ Erosleek eta sailtzaileek zergaren zama banatzen dute.



2.4. Sistema ekonomiko parekatuak

SISTEMA EKONOMIKOAK

TEORIAN

EKONOMIA PRIBATUA-
EKONOMIA PUBLIKOA

MERKATU EKONOMIA –
ZUZENDARITZA ZENTRALEKO
EKONOMIA

EKONOMIA KAPITALISTA –
EKONOMIA SOZIALISTA

ERREALITATEAN

ERREALITATEA MIXTOA
DA HERRIALDE
GUZTIETAN
(AUKERA TEORIKOEN
NAHASKETA)

KAPITALISMOA

- Industri Iraultzarekin sortzen da (XVIII mendearen amaiera – XIX. Mendearen hasiera)
- Enpresa “kapitalistetan” oinarritutako merkatu-ekonomia
- “Eskaintza” eta “eskaria”ren bitartez arautzen da, berez, merkatua
- Estatuak ekonomian duen esku-hartzea mugatu behar da.
- Gero eta bateratze/kontzentrazio handiagoa, eskala-ekonomien arabera

Kapitalismoa.

Bateratze/Kontzentrazioa

- Prozesu historiko motela baina etengabekoa.
- Horren ondorioz:
 - .. Enpresak gero eta handiagoak dira
 - .. Gero eta enpresari gutxiago daude
 - .. Gero eta autónomo gutxiago
 - .. Gero eta soldatapeko langile gehiago

Gaur eguneko biztanleria aktiboan:

- .. Soldatapeko langileak, %85
- .. Autonomoak, %10
- .. Enpresariak, %5

Sozialismoa

- Kapitalismoa gainditu nahi duten ideologiak.
- Abiapuntua: XIX mendearen hasieran enpresari eta langileen artean sortu ziren kontraesanak.
- Sozialismo “utopiko” edo “kooperatibista” gisa sortzen da. Langileek enpresaren jabetza hartzea proposatzen dute.
- XIX mendearen erdian: Estatu-Sozialismoa: Sozialismoa eraikitzeko, Estatuak hartu behar du enpresen kontrola
- Hasierako herrialde sozialistak: Sobiet Batasuna 1917-1990. Estatuak hartzen du enpresen jabetza eta zuzendaritza zentrala.
- Merkatuko Sozialismoa:
 - A. Sozialismo Autogestionarioa: (Yugoslavia 1945-1990). Lehian ibiltzen diren merkatuko enpresa publikoak).
 - B. Herrialde emerjenteak/gainerakorrak 1990tik Aurrera (Txina, Errusia, ...)

Sozialismoa. Herrialde emerjenteak/gainerakorrak

- Enpresa Handiak eta Gobernuaren arteko harremana: Enpresa Handiak Gobernuaren menpe
- Kapital-enpresek pisu handia dute (empres txiki, ertainak eta estrategikoak ez direnak)
- Banku-sektorea eta empresa estrategikoen jabetza publikoa
- Eragin publiko handia empresa pribatu handietan

Ekonomia Mixtoa

- Gaur egungo errealitatean, Ekonomia Mixtokoak dira herrialde guztiak. Modu batean edo bestean, Merkatu eta Zuzendaritza Zentrala eta Ekonomia Privatu eta Publikoa nahasten dute.
- Erreferentzia gisa, gakoak diren herrialde batzuk koka ditzakegu, ekonomia pribatuan / merkatukoan muturrekoa den EEBB eta ekonomia publikoan / zuzendaritza zentralekoan pisu handiena (Ipar Korea) duenaren artean.

MERKATU/EK. PRIVATU/KAPITALISMO GEHIAGO.....ESTATU/ZUZENDUTAKO EK./ SOZIALISMO GEHIAGO

EEBB

Herr.
Anglo-
saxoiak

Europa
Medi-
terr.

Erdiald.
Europa

Ipar.
Europa

India
Iran

Errusia

Txina

Bielo-
rrusia

Cuba

Ipar
Korea

ENPRESA KAPITALISTA

LANAREN BANAKETA	ZEREGINA
INBERTSIOGILEA (KAPITALISTA)	ENPRESAREN JABEA
LANGILEAK	SOLDATAPEKOAK

ETEKINA =
=SARRERAK - GASTUAK

GASTUAK
(LANSARIAK, EROSKETAK, ...)

SARRERAK
(SALMENTAK)



2.5. Jarduera ekonomikoaren neurketa

Oinarrizko Adierazlea:

BPG

(Barne Produktu Gordina)

BPG-ren osagaiak


- BPGk (Barne Produktu Gordina) zera neurtzen du: Urte batean, eskualde batean ekoiztutako produktu eta zerbitzu guztiak.
- Baina BPGren helburua jarduera ekonomikoa neurtzea da. Eta “zirkuitu” ekonomikoaren fase ezberdinetan egin daiteke hori. Ekoiztutako ondasun eta zerbitzu guztien moduan edo ekonomiaren gastu/kontsumo osoa bezala edo lurraldeko biztanleek eskuratutako errenta guztien moduan.

BPGren osagaiak

- **C** = Kontsumoa (etxeguneak)
- **I** = Inbertsioa (enpresak gehien bat)
- **G** = Gastu publikoa (Estatua)
- **XN** = Atzerritarrek egindako gure produktuen kontsumoa (**esportazioak**) ken gure herrialdeko hiritarrek burutzen duten atzerriko produktuen kontsumoa (**inportazioak**)

$$BPG = C + I + G + XN$$

Ekonomiako fluxu zirkularra



BPG erreal eta nominala

- BPG_r
 - Prezio konstanteetan neurturiko ondasun eta zerbitzuen produkzioa
 - BPG_n
 - Prezio korrienteetan neurturiko ondasun eta zerbitzuen produkzioa
-
- ▲ BPG Erreala = ▲ BPG Nominala – Inflazio Tasa

Biztanleko BPG

- Biztanleko BPG = BPG per capita = Errenta per capita
- Lurralde baten garapen ekonomikoaren adierazle zuzena.
- Herrialde bi alderatzeko, bien artean dagoen salneurrien aldea hartzen da kontuan, EAPren (Erosteko Ahalmen Parekatua)ren arabera neurtutako biztanleko BPGren bitartez.

Prezioen / Inflazioaren Eragina

- KPI = Kontsumorako Prezioen Indizea
Kontsumitzaile adierazgarri batek ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua
- Inflazio Tasa = $\frac{KPI_t - KPI_{t-1}}{KPI_{t-1}} 100$
- Interes tasa erreal = Interes tasa nominala – Inflazio tasa
- ▲ BPG Erreal = ▲ BPG Nominala – Inflazio Tasa